

II.— Gorostiaga jaunak, darabilkigun iztegi berian ez dauden itz batzuk gogorazten dizkigu. Aben *neologismoak* ipiñi ditugu.

III.— Beste itz beñi edo *neologismoen* eraspenean jardun degu. Ta beste gai batzuek urango batzañaldirako laga-ta, otoitzez amaitu da auxe.

**Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian,
1934-ko Garagañilaren 28-an.**

Euskaltzain abek bildu gera: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde, Intzagarai. Urgazle jaunak iru: Ormaetxea, Gorostiaga eta Belaustegigoitia Perderika. Otoitzez asi da.

I.— Eguskitza jaunak adierazten digu itz beñi edo neologismoak nola eratu litezken.

II.— Azkue jaunak bere lan bat irakuñi digu: *Arcaismos lexicales y verbales*. Euskaltzain batzuek oarpenak egin dizkiote.

III.— Urkijo jaunak galdetu du, ea-ezer erantzun bear ote zaion Huarte jaunari *Ignoto vasco que murió en Oñega* dala-ta. Euskaltzaindiak ez daki oñetzaz ezertxo ere.

IV.— Gorostiaga jaunak itz batzutzaz zerbait esan digu.

V.— Ondañuko Udalak bere seme ta gure euskaltzainkide maite zan Domingo Agiñe jaunaren oroitz-

jaietara Euskaltzaindiari dei dagio. Denon ordez Azkue jauna joango da.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934-ko Urriaren 25-an.

Euskaltzain jaun auek bildurik daude: Azkue maipuru, Urkijo, Lakonbe, Intza, Altube, Eguskitza, Intzagarai. Urgazletatik: Ormaetxea ta Gorostiaga. Otoitz egin da.

I.— Aita Intzak *Euskaltzaindiaren laguntzaiñeak* izenez, diru pixka bat nai luke batzaldi bat gertutzeko, *Aufentzat euskal-ikaskera* gai bezela artu-ta. Erantzun zaio, lendik Euskaltzaindiak iragaña daukala batzaldi orixe ta gai berarekin. Lanak, datoñen Otsailarteraño bidali ditezke Euskaltzaindiko Bilboko gure etxera.

II.— Azkue jaunak dio Lopez Conde jaunarekin itz egin bear dala, Iztegi beñiaren irarpidez. Ganera, bere iritxiz, eskatu litzaioke eunetik amar bat gure alde. Beste euskaltzain jaunak erantzun diote, *amar bat* auxe, ezin eska litekela irarpen itunbena egiñik dagolakó.

III.— *Amputar, antifaz, apipar* ta beste itz batzuek zuzendu ta euskeratu ditugu.

IV.— Etxanotik Arantzeta'tar jaunak bialtzen digun eskutitza, Altube jaunak irakuñi du.